

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

162/2016 Foru Agindua, ekainaren 27koa, behin betiko onartzen duena baldintzekin Guardiako udalerriko planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedientea, hiri lurzoruko 34 eta 36 industria areetako eraikuntza baldintzei buruzkoa

I. AURREKARIAK

Lehenengoa. Guardiako Udalak, 2015eko irailaren 10eko osoko bilkuran, erabaki zuen hasierako onarpena ematea planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntual bati. Aldaketa hori eraikinak "Iparraldeko industria area" 34 arearen eta "Eraikin berria iparraldeko industria arean" 36 arearen muga komunekiko daukan atzeraguneei buruzkoa zen. Gainera, aldaketa hori hilabete jendaurrean jartzea erabaki zuen. Horretarako, iragarki bana sartu ziren ALHAOn (2015eko urriaren 14koa, 120. zk.) eta 2015eko urriaren 13ko "El Correo" egunkarian, eta Paganosko Administrazio Batzarrari jakinarazi zitzaion, besteak beste.

Bigarrena. Arabako Foru Aldundiko Biodibertsitate Zerbitzuari (orain Ingurumen Jasangarritasuna) ere jakinarazi zitzaion hasierako onarpena, haren eskumeneko edozein gairi buruzko txostenak egin zitzaion. Edonola ere, zerbitzu horrek ez du txostenik egin orain arte.

Hirugarrena. Jendaurreko epean ez zen alegaziorik aurkeztu, eta Udalak, 2016ko martxoaren 10eko bilkuran, behin-behineko onarpena eman zion espedienteari.

Laugarrena. Guardiako Udalak espedientea bidali zuen, aldundiak, egoki iritziz gero, behin betiko onar zezan (sarrera erregistroko data: 2016ko maiatzaren 24a).

II. OINARRIAK

Lehenengoa. Espedienteak, zeina sustapen pribatukoa baita eta Guardiako Udalak izapidetu baitu, Guardiako planeamenduko indarreko arau subsidiarioen zehaztapen grafikoak aldatzen ditu II.5.1 planoan ("Hiri lurzoru eta lurzoru urbanizagarria. Eraikuntza baldintzak, lurzoruaren jabaria eta ondarearen babesa. Guardia" izena du), eraikinak 34 eta 36 antolamendu xehakatuak areen mugarekiko dauzkan atzeraguneei dagokienez.

Bigarrena. Aldaketa honek bi xede ditu:

1. Alde batetik, kentzea "Iparraldeko industria area" 34 arearen eta "Eraikin berria iparraldeko industria arean" 36 arearen muga komunekiko dauden eta indarreko udal planeamenduak jasotzen dituen eraikuntza atzeraguneei.

2. Eta, bestetik, ahalbidetzea eraikina eremuko barrualdeko mugei atxikitzea baldin eta mugakideen berariazko adostasunaren idazki bat badago horretarako, zeina eraikuntza baimenerako eskaerari erantsi beharko zaion.

Hirugarrena. Aldaketa hau egin beharra dago premia dagoelako atzeraguneei berdintzeko 34 eta 36 areen muga komunekiko, ez dadin ulertu mesede tratua eta lehentasunezkoa dagoenik inguruko eremuetako lurzatiekiko; hau da, ez dadin ulertu, antolamendu xehakatuak eremu horien artean grafikoki ezartzen diren eraikuntza atzeraguneei ondorioetarako, eremu bakar bat denik.

Laugarrena. Nola proposaturiko aldaketa administrazioari planeamendu arloan aitortzen zaion eta ekainaren 30eko 2/2006 Legearen, lurzoru eta hirigintzarenaren, 102. artikuluan eta

hurrengoetan eta lege hori arautu duten dekretuetan araututako ius variandi egikaritzearen zati den, ezin zaio inolako eragozpenik jarri hura onartzeari.

Dena den, Guardiako udalerriko hirigintza planeamendua eta legeria aplikagarria kontuan hartuta agiria azterturik, zuzendu beharreko zenbait alderdi antzeman dira, ondoko atal hauetan zehazten direnak, hain zuzen:

A. Aldatu beharreko agiriei dagokienez:

1. Lehen aipatutako II.5.1 planoaz gain, II.4.1 planoaren ere zuzendu beharko litzateke ("Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Hiri egitura, bide sarea eta zonifikazio xehakaturia. Guardia" izena du); izan ere, nahiz eta legendan ez daukan inolako zehaztapenik eraikinek planeamendu eremuekiko daukaten atzeraguneei dagokienez, marraztuta ageri dira.

2. Bestalde, eta nola aukera dagoen eraikina mugei atxikitzeko, 34 eta 36 areetako hirigintza fitxetan aldatu egin beharko da barrualdeko mugekiko egon behar diren gutxieneko atzeraguneei buruzko idatz zatia.

B. II.5.1 planoari dagokionez ("Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Eraikuntza baldintzak, lurzoruaren jabaria eta ondarearen babesa. Guardia"):

1. Trazadura aldatua "mugarekiko nahitaezko lerrokadurak" epigrafeari dagokio legendan, baina benetan aldatu nahi dena da eraikinen gutxieneko tartea eremuaren mugekiko; oker erabili da "lerrokadura" terminoarekin lotura daukan lerroa.

Horri dagokionez esan behar da "lerrokadura" dela erabilera publikoko bide edo espazio libre gisa erabiliko diren lurzoruen eta lurzati eraikigarrien arteko muga ezartzen duen lerroa, planeamenduak hala zehaztuta. Bestela esanda, lurzati bat eta aurrez aurre daukan bidea edo espazio libre publikoa mugatzen dituen muga edo lerro perimetrala da. Termino hori kontuan izanda, ez litzateke koherentea izango kasuan kasuko planoetan zuzentzea "mugarekiko nahitaezko lerrokadurak" lerroaren kokagunea, aldaketa honen xedeak erdiesteko.

Horiek horrela, aurreko lerroaldeko definizioaren arabera eta han arrazoitutakoa oinarri, erabili den trazaduraren ordean "eremuaren mugekiko gutxieneko tartea" izenekoarekin lotura daukana erabili beharko da lehen aipatutako planoetan.

C. Agiri teknikoaren euskarri informatikoari dagokionez, aurkeztu behar diren agiri guztiak aurkeztuko dira behin zuzenketak egin eta gero, "fitxategi editaezinetan (*.pdf luzapena) zein fitxategi editagarrietan (zehazki, planoak *.dwg formatuko fitxategietan -arkatzen fitxategia erantsi behar da, *.ctb formatukoa edo *.shape fitxategietan, eta testua *.doc fitxategietan).

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Behin betiko onartzea Guardiako planeamenduko arau subsidiarioen aldaketa puntualaren espedienteak, eraikinetan "Iparraldeko industria area" 34 arearen eta "Eraikin berria iparraldeko industria arean" 36 arearen muga komunekiko daukan atzeraguneei buruzkoa. Hona hemen zer aldaketa egin behar diren:

– II.4.1 planoaren zuzendu behar da ("Hiri lurzorua eta lurzoru urbanizagarria. Hiri egitura, bide sarea eta zonifikazio xehakaturia. Guardia" izena du); izan ere, nahiz eta legendan ez daukan inolako zehaztapenik eraikinek planeamendu eremuekiko daukaten atzeraguneei dagokienez, marraztuta ageri dira.

– 34 eta 36 areetako hirigintza fitxetan aldatu egin behar da barrualdeko mugekiko egon behar diren gutxieneko atzeraguneei buruzko idatz zatia, aldaketan aukera baitago eraikina mugei atxikitzeko.

– Kasuan kasuko planoetan “mugarekiko nahitaezko lerrokadurak” lerroaren ordeztuaren mugetik gutxieneko tartea” izenekoarekin lotura daukan trazadura erabili beharko da, aldaketa honen xedeak erdiesteko.

– Aldaketa horiek euskarri informatikoan jasoko dira, eta berriro aurkeztu beharko da agiri teknikoaren edukia nola fitxategi editagarrietan hala editaezinetan.

Bigarrena. Aipatutako baldintzak ez dira funtsezkoak. Beraz, haiek zuzendutakoan espediente foru aldundiari igorriko zaio, berriro jendaurrean jarri gabe, betearazi beharrekoa dela adieraz dezan, izapideak egin daitezzen eta argitara dadin.

Hirugarrena. Ebazpen hau ALHAOn argitaratzea.

Laugarrena. Ebazpen honek administrazio bidea amaitzen du eta beraren aurka, zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi edo argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko ekainaren 27a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO